

Muxika herriko lexikoaz ohar batzuk

Ricardo Badiola

Txostentxo honen helbururik behinena, goian aitaturako herrian erabilten dan eta gaur egun ia-ia desagertzeaz dagoen lexikoa apur bat arakatzea dozue. Pedro de Yrizar jaunak dinoenez gure auzuneotako lexiko, adizkera eta abar, 'Gernikaldeko euskera' barruan kokatuko litzakez. Dakizuenez, bizitzaren gora-beherengatik, herria hustutzen doakigu eta honegaz batera bertoko berbeta be galtzen joaku edo galtzeko zorian dogu, gelditzen diran azken berbagileak zaharrak dira eta datozenek ia-ia ez dabe hemengo berbetarik egiten. Arrazoi soziologiko, ekonomiko eta abar asko topatu geinkez, baina...Hau guztiau holan ikusita, bilketa ekintza behar-beharrezkotzat jo dogu.

Gaur egun, jakina danez, danontzat, dialektologiaren arlo edo eremuan oso balio gitxi eskeintzen jako lexikoari. Alde batetik, lexikoaren aldaketak askoz be ugariagoak izaten ditugulako eta, bestetik antzinatasunaz ez deuskuelako gauza haundirik argitzen... Izan be, lehenagoko agiri edo dokumentuek oso lexiko laburra eta, nire ustez, nahiko eskasa erakusten deuskue.

Gure ustez, lexikoa dogu gure auzuneotako berbeta edo kulturaren eta izakeraren ispilua, eta bizimoduaren aldaketakaz desagertu edo

desagertzeaz daukaguz giza-bizitza, animalia edo abere eta landare, lurreko hazi eta frutuek azterkaria daukien berberak ia-ia desagertuak ditugu pertsonak hilten doazen eran .

Bizitzaren gora-beheretik inguruetatik herri haundiagoen eraginaz (Zornotza, Gernika, Durango) erdaratik edo gaztelaniatik maileguz kopurua gero eta nabarmenagoa dogu... eta eremu honetan lexikoa dogu, beren-beregi, eragin zuzen-zuzena jasaten edo sufritzen dauana. Eta hemen albo batera izten ditugu aditz formak, deklinabidea, joskera, azentuazio, entonazioa eta abar... honeitan oraindik nabarmenagoa egiten jakulako gure arboengandik jasotako berbera-era.

Zerrenda labur honetan fonologiak ematen deitson itxura adierazi gura dogu. Berba, mugatzaileguz eta bariante desberdinekaz sartu dogu, baina ez beti aspergarria ez izateko.

Transkribaketa arlo edo eremuan, ez dogu alfabeto fonetikorik erabili gura izan, gauzak, behar bada, argitu baino ilundu gehiago egin daitezkeelako. Batzutan ‘y’ zeinua erabilten dogu igurzari sabaikoa ordezkatzeko, eta ‘j’ aldaera belarra adierazteko. Bestaldetik, ‘h’ fonemak kendu egin ditugu, arlo honetan ordezkatzeko fonetikorik ez daukie eta. Eta azkenik, bokal barden artean geminaziorik jazoten ez danean, bokal bikoitza alboratu egin dogu.

Lagin modura, hona hemen nik neuk jasotako berba batzuen testigantza edo lekukotasuna eta adibideak:

1. Agudo: sino. de ‘arin, baina denborari buruz berba egitean: “Eneko, erdu agudo”. “ Bier bat AGUDO eñ...”.

2. Akabatu: pitzia bat galdu..: “Goizean subie galdu yoat errekon-
doan”. *Akabatu* pertsonari kalte egin daiketan pitzia bat galtzari esaten deutzogu.

3. Artalorie: ‘Ama ARTALORIE egiten yabilku’: ‘forfolla, perfolla’.

4. Atsa / atza: ‘hedor’: Korta-atsa, sats-atza....’ATSA’ ‘Usain’-aren antonimo modura erabilten dogu. Muxika inguruan eta zabalagoan be / S / eta / Z / artean euskalkirik gehienetan (baina ez gaur eguneko biz-

kaieraz, eta ezta Beterriko gipuzkeraz be), balio fonologikoa dabe fonema honein arteko oposizioek. Adibidez: hotsa hotza; atso # atzo; esker # ezker...

Bizkaieraz eta baita ia-ia Mendebalde osoan be, bi neutralizazio ditugu gaur egun:

$$\begin{aligned} Z &= S = [sʃ] \\ TZ &= TS = [c] \end{aligned}$$

Bi soinu galdu ditugu: [s] eta [č]. Beraz, Mendebaldean hurrengo nahasketok sortzen jakuz:

(H)otza =	(H)otsa =	[oca]
Atzo =	Atso =	[aco]
Ezker =	Esker	[ešker]
(H)ezi =	(H)esi =	[eši]

Holan korrelazioa apurtu egin jaku:

$$\frac{\emptyset}{c} = \frac{\acute{s}}{\emptyset} = \frac{\check{s}}{\check{c}}$$

5. *Bailarinak*: arien antzeko tresna, lurra urratzeko erabilia... bost lerroko burdinak daukaz eta lerro edo fila bakoitzean burdinazko lau puntadun hortz: ‘Aitta-semeak *baillariñeketan* dabiz Etxaburuko solotan’; lurra urratzen, bedarra galdu eragiteko eta ondoren hazia ereiteko.

6. *Bardie*:

1. Sua biztu edo egiteko egur mehea.

2. Zentzu figuratiboan pertsona edo aziendak zigortzeko erabilten dogu: “Mikel eta Isidrori amak *bardiaz* emon deutse” ; “Txata beiye *bardiagaz* jo dau aittak goldaketa eittean”.

7. *Bor-bor*:

1. Jateko gauzek edo janariak egostean egiten daben hotsa.

2. Zentzu figuratiboan, kexaz dabilen pertsona, umore eskasekoa: “Gure Patxi beti yabilku *bor-borrien*”.

8. *Buztiñe*:

1. Lur hezea, ura dariola duena .

2. Lur berezia, horizka eta uragaz nahastaturik askaurre eta base-
rriko hormak lixutzeko erabilia. Badago holako beste lur mota bat
be, baina desberdina dogu: *loiye*.

9. *Egiye*: landa edo soloa, baina aldapatsua. Ajuria auzunean aurki-
tu dot, toponimia eremuan, : “Auyondo ondoko landaren izena *egiye*
dogu eta bertan parte batean piñadiye dago eta bestean soloa, non
frantsesa eta aillorbie ereiten dabezen...”.

FRANTSESA: sekulabedarraren antzeko ganaduentzako janari mota;
baina kirtena latza eta emoten dauen lora eta hazia be latz samarrak iza-
ten dira. Elikadura haundiko janari-mota dogu.

AILLORBIE: R. M. Azkue jaunak zera dakar: Aillurbe (*Euskalzale*):
'Alholva'.

10. Ganbela: 30-40 zmt. daukan egurrezko kutxa, goitik libre dau-
kana eta alboak eta behea egur edo zur sendoagaz egina. Berau gana-
duei (behi, idi, txahal, asto, behor, ahuntz...) pentsua emoteko erabilia:
'pesebre transportable'.

11. *Gñe*:

1. Akuiluaren puntan ezarten den untze zorroztua, gero, gana-
duak bizkortzeko, batez be, buztarrian dabiltzanean.

2. Zentzu figuratiboan 'persona picante, retorcida, hiriente':
“Mikel, soldautzatik etorri ta gero *gñe* baino okerragoa egin yaku”.

12. *Iñalien*: “Marino Lejarreta *iñalien* dabil etapa bat irabazi gurien”;
“Anbrosio oiñ bierrak *iñalien* egiten yabik/ yabin, gero erromeriyera
joateko asmoagaz”.

13. *Ipuruko*: idi edo behiei aurreko aldean —buztarrian dabizeni-
en— ezarten jaken ugela, buztarriko 'zapak' eta buztarriak berak minik
egin ez degitsen.

14. *Izentaziño* emon, eskeini...: “gure amuma zan Mertzedesek familia osoko partaideentzat edo kideentzat *izentaziñoa* banatu eban eukazan diru eta lur-eremuetan” (Anastasia Uriarte, Nabarniz, 1911... Muxika 1930... eta orain bertan ezin dau bizi osasunaren arazoengatik).

15. *Kako*:

1. Egur luze samarra frutarbolako intxaur, sagar, hur eta abar behera botateko erabilten dena.

2. Etxeko hodi edo bestelako isurbide bat itsutzen danean ha libratzeko erabilia.

3. Zentzu figuratiboan zeozer erabakitzeko gaxtasunak aurkitzen direnean eta urtenbidean aurkitzen danean esaten dana: “I,or yauk / yaun or *kakoa*” (arazo baten GILTZA): ‘Quid de la cuestión’.

16. *Kili-kolo*:

1. Erdi mozkortuta dabilen bati esaten deutsogu.

2. Pertsona bat erdi-gaixorik dabilenean, osasun makala izatean, izatez edo izaeraz biguna danean.

3. Harriak erdi-solte dagozanean, haginak loka ditugunean...

4. Ajuria auzuneko txoko edo tabernaren izena, handik urtetean pertsonak zelan ibiltzen diren ikusiz gero ezarri eutsoen izena: “Tomas, KILI-KOLOtik politto baten urten az, eztok...!"; txolinduta, mozkortuta.

17. *Kukulu*: *ikus* artalora, ganille.

18. *Kuzkuta*: landare bizkarroi edo jantxakurra, beronek hari itxura dauka. Sakonunetan aurkitu daiteke. Antzina, dirudienez, gure arbasoek dinoienez, pertsonen garatxak kentzeko erabilten zan.

19. *Laatza*:

1. Beheko sutan tximiniatik katea eskegita eta haren puntan ezar-ten dan burdina, baina puntan okerunea, bertotik galdailla (esnea

egosi, morokilla egin...eta abar egiteko ontzi zabala eta astaduna), galdara eta abar eskegiteko. Gero sua egin eta barruko: esnea, erro-malatxa... eta abar egosteko erabilia. Bestalde, kearen keak kedar-tuta izaten da, kedarrez betea...

2. Zentzu figuratiboan: pertsona mugimendu gitxikoa, egonkorra, tratureko nahiko latza, ideia finkoak daukazana...: “Ori mutilori zelako dan etxeko *laratzak* esango deusku” (Ajuria, Kontze Begiristain, 1904-1996).

20. *Latxa*:

1. Ardi mota bat, arruntki, artile luzeduna eta nahiko latza eta okela gitxikoa. Arraza hau ‘txurra’ deritxonarengandik bereizten dogu. Honek azkenonek, txurrak, gorputza sendoagoa dauka, okela samurra eta marraskilo antzekoa.

2. Zentzu figuratiboan pertsona edo lagun argala, zurbila, itxura eskasekoa eta erkina.

21. *Libratu*:

1. Zerbait alboratu, aurretik kendu, baztertu.

2. Zereginetan ondo urten, norberaren alde egin, errurik gabe izan: “Hi, Mikel... onetik *libratu* az...!”

3. Umea egin, batez be andriengan jazoten danean: “Gure Maria goizeon *libratu* yaku”.

4. Komunera joan eta gorpuzkinak egin. Kaka egin.

22. *Marimutiko / marimutil*: neskatoa edo neska gaztea mutiko edo mutil gaztearen zaletasunak dituena, beti mutilekaz olgetan dabilena, mutilen erara janzten dana : “Miren *marimutil* ederra eginda yabilku aspalditxo onetan”.

23. *Miondokoa*: behi, txarri eta abarren gaixotasuna. Gaixotasun honegaz begiak puztu eta ahoa zabal-zabalik izaten dabe. Minaren azpian zaina edo zaintxoa haunditzen jake... eta hau, zaintxoa, ebagi egin behar jake, odola emon arren...; baina kontu izan behar dau eba-kuntza egiten dauanak, animalia odolustu ez daiten.

24. *Mizkinkeriye*:

1. Gauzatxoak, gauzañoak, hondakintxoak.
2. Janari eremu edo sailean ‘gula’, salokeria, txibizkeria...
3. Gozokia, mizkeria, litxarrerria: “Alboko etxean bizi yakun Ander beti dab *il mizkinkeriye*k jaten... holan gero ez dau sekula be ondo bazkaltzen....”.

25. *Mosala*:

1. Alanbrazko tresna behi edo idiei —goldaketetan edo arietan dabilzanean— motara heltzerakoan bedarrik jan ez dagien ipinten jakena. Tresna hau animaliaaren musturrari egokitu egin behar jako minik hartu ez dagian.
2. Zentzu figuratiboan: berba franko egiten dauenari: berbaldun-berbaldunari ahoa apur bat ixteko adierazi gura deutsogunean esaten dogu: “Klasean baten bati *mosala* ezarri biarko deutsogu, bestela ezin dogu klaserik emon”.

26. *Ñarro/ ñañarro/ kakanarru*: “Gizon *kakanarru* ori, nora doa orrenbeste pisuagaz...!”

27. *Okasiño*:

1. Aukera, parada, tenore, abagadune.
2. Hileta, ehorzketa: “Pozuaundiko Andresen *okasiñoan* jendetza ederra izan zan”.

28. *Otzikarakaka*: “*Otzikarakaz* dogu gure Ander”; “*Otzikarakaz* lorik ezin eiñ”.

29. *Pertika*: egurrezko edo zurezko makila, beronen puntan burdinazko punta zorrozdun untzea daroana. Berau animaliak ibiltera behartzeko erabilia, eta batez be, buztartuta dagozanean, geldotasunetik urten eta arinago egiteko.

30. *Pue / antaparie*:

1. Errotarako ura gordetzen den gordailua edo presa.

2. Sabaitik kortara bedarsikua botatzeko izaten den tranpa.

3. Umeen berbetan: miña edo zauriren egitean esaten dena: “*Pue edo pupu* egin dau gure Maddik”.

31. *Satar*:

1. Heziketa gitxiko pertsona, errespetu gitxikoa, norberekoa.

2. Aziendetan agertzen dan gaixotasun berezia. Berau osatzeko narruan ebagiak egin eta berakatzak ezarten jakez.

32. *Sauku*: sasi eta asun artean sortzen den arbola edo zuhaitza, hosto luzengak eta lora zuria emoten dau maiatz inguruan. Beronen azala eta hostoak, toki batzutan, gaixotasun batzuk osatzeko erabiliak dira; bestalde, labako sua egitean, (ogiak: garizkoak eta artozkoak eta beste gai batzuk: sagarrak, madariak...) labara sartu aurretik *saukuaren* orriekaz multzoa egin, lotu kako baten puntari eta labatik hautsa kentzeko erabilia.

33. *Susara / susel*: ‘celo de vaca’; *ozara*: ‘celo de perra’; *alta*: ‘celo de burra’; *azkara*. ‘celo de la cabra’; *susara jarri*: ‘ponerse en celo...’.

34. *Tankredo / tankredotu*:

1. Geldi-geldi gelditu, zirkinik egin barik gelditu, gatz bihurtuta moduan.

2. Zentzu figuratiboan: eritziz aldatzen ez dan pertsona, ideia tin-koak dituena, kontserbadorea dana, politika eremuan kontserbado-re samarra dana...

35. *Tapa-tapa*:

1. Zeregin batean ekina izatea, jarraiko eta eguneroko ahalegi-na... eta eten barik ibiltea.

2. Neska-mutilak txikiak direnean, umetan ibiltzen ikasten hasten direnean, orduan esaten jake: “Nerea, hamaika ilabetegaz *tapa-tapaka* hasi jaku”.

36. *Tarrapataka*: ariñeketan batean, kontu izan barik: “Gure base-
rrian ibili diran beargiñek *tarrapataka* egin deuskue etarteko porlana
botatie”.

37. *Tripotxa*:

1. Hegazti eta bildotsen barrukiak, pikatxa, gibelerraiye...: ‘asa-
durilla’.

2. Zila edo zilborra.

3. Zentzu zabal eta apur bat etxeko berbetan: tri pazakua, tri pa-
zorroa.

38. *Txapa*:

1. Txanpon plantxa.

2. Jokoa: kasu honetan airera botatzen dira txanpon bi, eta alde
bardinera emoten badabe, lehenengoa bota behar da barriro. Eta
atzekoz aurrera jazotzen bada, hurrengo txandari dagokio.

39. *Txingerra*:

1. Suaren txindi edo zirta.

2. Zentzu figuratiboan: beroa, baina seksu eremuan (neska zein
mutila): “Arratsalde honetan, gure Koldo, *txingerra* baño beroago
dabil nesken atzetik...”.

40. *Txirringola*:

1. Burdina edo latoizko txirringola edo uztaia eta berau beste
burdina luze eta mehe bategaz puntan bihurtzea eginik eroaten
dabe umeek. Gehien bat mutilen artean erabilten da; inoiz neskaren
bat be eroaten ikusia naz, baina oso gitxitan.

2. Edozein uztai edo eskuturreko.

3. Zentzu figuratiboan: pertsona lodikotea, apur bat eskas jan-
ten dana, ardurabakoa, zabarra, desordenatua.

41. *Txoriburu*:

1. Zentzu figuratiboan: pertsona tuntuna, zorakiloa, txatxala.

2. Pertsona kaskarina, ganorabakoa;
3. Haria, baina lodiera desberdinekoa.

42. *Txurrutaina*: joko bat, zeinetan buruz behera jarri edo ipini eta albotik gainera salto egiten daben. Toki batzutan: astora olgatu be esaten dogu.

43. *Urdindu*:

1. Ogia lizundu, amiotu.
2. Zerua argitu, lainoak edo hodeiak desagertu.
3. Zentzu figuratiboan: pertsona bati buruko ulea zuritu, pertsona nagusitu edo adinean sartu.
4. Kolore uherra, grisa, urdina;
5. Zentzu figuratiboan: zeozer uhertu, zikindu, lohitu, arretu...

44. *Zakutoa*: zaku txikia, bidezorrotxoa, alportxa: “Gure aitta zanak basoko biherrera, *zakutoan* eroten eban bazkari sikua”.

45. *Zapa / zapak* (gehienetan pluralean erabilten dogu): ‘buztarri/zapak’: “idi edo behiyek buztartzerakoan, ediek minik egin ez deitsien erdi trapu erdi ugel eta beeko aldean borla gorri batzuk dindizlizka eroten dabezana” .

46. *Zebet*:

1. Ogia, arbi edo naboa edo erromalatxa hautsi, apurtu, zatiak egin... jateko: “Ama, mesedez ogiye zeetu eixu Mikelentzat...”.
2. Helburu kontretu batera baten bat gidatu, bidean jarri...
3. Bakoitzari bere biherra markatu...: ”Mikeli *zeetu* deutesen biherra bete dau; eta zuk, zeurea... zelan dozu?”; “Soldautzan bakoitzak bere bierra *zeetu* behar izaten gendun”.

47. *Zinbu-zanbu* (zinbu-zanbuen ibilli): kulunkan, zabunkan edo baita beste era honetara be erabilten dogu, aditza bera erabilita: *zabun* -

katu: “Kalegorritik baserriratu eta Eneko eta Eneritz, beti dabiz intxaurondoaren adarretik eskegita *zinbu-zanbuetan*”.

48. *Zorrotz*:

1. Meharra, mehea, fina: “ganibet edo kutxillo *zorrotza* dabil Enekok”.

2. Zentzu figuratiboan: pertsona zuhurra, zolia, oharkorra, ernea.

3. Zentzu figuratiboan: pertsona latza, neurrikoa, itxia.

4. Zentzu figuratiboan: zehatza, gogorra, garratza: “Andoni eta Maddi irakasle *zorrotzak* dittugu”; “Euskal Herrian epaile asko eta asko euskerarekiko oso *zorrotzak* dittugu, baña erdadekiko...!”

Azken ohar modura:

Nire ustez, jasotako lexiko labur honetan argi eta garbi ikusten dogu metaforaren erabilera, hau da, figura literario hau oso erabilia dala gure auzunotako lexikoan. Esate baterako, azienda edo animalien izenei dagokienean, arrunt-arrunta edo ohizkoa dogu baliabide honen erabilera, eta baita, inoiz landare eta pertsonen izenei dagokienean be ‘adarjote’ modura, akats edo defektu fisikoa agertzen danean eta abar.

Naturari lotutako eremu edo alor batzuetan, eta batez be, azienda edo abere edo animalien munduan nabarmen ikusten dogu antzinako sinismen edo siniskeria, eta honeitan folkloreak eragina be handia nabarmentzen dogu. Adibidez, oso ezaguna dogu ‘erromako zubia’ edo “arco iris” edo beste era batera adierazita, eguzkia eta euria batera egiten dituen horren inguruan dogun siniskeria. Eta horren inguruan adierazten diran berbak, irudiak, pentsamoldeak.... Hemen ikusi daikegu era bateko ‘animismoa’ gordetzen dala naturaren fenomeno horren inguruan... batzuk ‘azeriaren’ eztei edo bodak ikusten dabezela azaldu deuste....; hau da, azeri bat bailitzan fenomeno meteorologiko hori, edo eta, fenomeno miragarri horren inguruan sortzen diran siniskeriak...

Bestalde erlekume barria sortzen danean eta erlontzia izten dauanean emoten dan jazoeraren inguruan be, gauza harrigarriak emoten dira goian aitaturako herriko ohituretan: bi latorri jotzen dira alkarren artean eta errezu antzeko edo konjuru bat modukoa kantatzen dabe, batez be edadeko pertsonak... eta erleak erlauntza edo kofaura batu gura ditugunean...Honek guztionek argi eta garbi adierazten deusku gure herriotan zor jakela begirunea, euren gandik jasotzen dan ezitia, eta abar bitarteko ditugula. Erleie, oso estimagarria dogu... baten baino gehiagotan basoan ‘marroa’ topatu eta etxera etorri, idi edo behiek buztetu eta ‘marroa’ kontuz-kontuz sustraitik atara, erlauntza trapu zaharrakaz tapatu eta gero etxe inguruko erlontziaren inguruan ezarri...Eta, azkenean, erlontzi barrira sartu.

Adjetiboa askotan erabilten dan eran edo prozesuan sarri animalien izenetan, bereziki “-tzarra”/ haundi-haundia: “iditzarra, behitzarra...” inoiz edo batzutan zentzu txarra edo peioratiboa adierazi gura dogu, baina ez beti...; inoiz euren izakera edo indarra edo itxura nabarmenarengatik be erabilia dogu... Atzizki hau, toponimian eta beste gauza batzuetan be aurkitu daikegu: “menditzarra, Ereñotzar, tronkotzarra, piñutzarra, harritzarra...”

Eremu semantikoa osotzen dabe ‘Mari-’ aurrizkia daben lexema batzuk. Honen inguruan, dirudienez, andrei dagokiezan jokaera batzuk nabarmentzen jakuz, alegia: “marimutil, mariaker, marimondongo, marizikin, maribisteko (garbitasun eskasa), marifurunda (errez-errez hasarratzen dana), marimutiko, marizerrenda (janztean zaintzen ez dana)...”.

Bestalde, aziendak izendatzerakoan deskripzioa agertzen jaku edonondik: “ezker, eskuma...”; hau da, “txorijalea, ollojalea, txorizalea, papagorriye; musturluzea (pertsonari dagokionean), erleustela/ erlealperra; musturzikiñe, mutzurdiñe/neska zaharra...; beharbada seksu aldetik be zerikusirik izan daike berba honek: urdindu...”

Gero ardi eta ganaduen edade edo adina hagin eta bazteraginen erara izendatzea be oso normala dogu; adibidez: “lau hagiñekoa edo

palakoa, sei hagiñekoa, bi ahagiñekoa...”: “behiyek, behintxak, astoak, zaldiyek...”.

Sail edo eremu honi ekinez gero, ‘antzuak’ deitzen ditugu urtebete-ko ardiak, kumerik ez daukienak...; berba honek ‘agorra’ edo kumerik ezin dauala izan adierazten deusku, baina kasu honetan be holan deitzen ditugu...: “ardi antzue, behi antzue, ahuntz antzue/ antxue, ...”.

Honen inguruan eta Euskaltzaindiak Euskararen Hizkuntza Atlasa Linguistikoaren inguruan dabilen gure ikasle izandako Iparraldeko Xarles Videgain jaunak (1991: 1065 dalakoan) honi guztioni buruz zera dino:

Kontuz hartzekoa da, berezi tresnen izendapenean, ezaguna den metonimia eta sinekdokearen eragina. Tresna osoaren izena eta bere zati funtzionalaren izena bereizten gaitz dirudi edo ez da egiten. Adibidez, -berak dino- dailu izaiten da ‘faux’ (tresna osoa) eta bai ‘lame de la faux’ (tresnaren parte bat). Zer esanik ez, tresna-mota batek aldaketa teknologiko asko jasan dituelarik mendeetan zehar, etsenplu ezagunena delarik golde-nabarrera.

Euskeraz esamolde edo perpaus batzuk lexikalizaturik agertzen jakuz eta, nire ustez, holan mailegatu dira erderara: *iñalien*: “(H)or ibilli gara IÑALIEN atzurrak ortu ertza atzurtzen, euriye eitteko arriskua edo trumoiak joko daualakoan...”. Eta honen antzera, erdara/ gaztelania, gure kasuan, behintzat, euskeraren artean interferentziek osotutako berbak aurkitzen ditugu han-hemen: “dozenaka, tronkoan, txoferrak, piñua, kamionetie, trentzie, Aiuntamentuko alkatie, treneko pasoa, pezetaren balioa”.

Ikusi eta frogatu ditugun sailean edo alorrean desberdintasun diatopiko haundirik nabarmendu ez arren, baditugu lexiko mailan isoglosa batzuk aipatzea merezi dabenak. Euretarikeo batzuk fonetika eremuari zor deutse diferentzia, baina berbok edo adibideok baztertuta itziko ditugu. Bestalde lexia diferente edo desberdina zehazten edo markatzen dabenak aitaturiko ditugu hemen; baina batzuk bakar-bakarrik:

“Arotzeríye..... sabaíye...
Tellátue, etxegaña... tellátue
kanposántue/ ortusántue, zementériyoa
Aurpegiye/ aurpeiye/ bisaiye (bisaia?) “.

Txarto esanak barkatu
eta ondo esanak hobeto hartu